azkoitiko udal aldizkaria 53. zenbakia 2014ko uztaila

Kontzejupetik

Gaztien herrixe, moiu ipurdixe
Gazte Eguna, hitzaldiak eta aisialdirako tailerrak antolatuko dituzte gazteek eta Udalak elkarlanean. **4**



Sozio-ekonomia
Beste 25 kontratazio bideratu dituzte bailarako udalek eta enpresa berriak abiatzeko diru-laguntza gehiago sortu **8-9**

Azkoitian Garbi
Hilaren 16,17,18 eta 19an banatuko da falta den materiala eta 22an hasiko da errefusa atez ate jasotzen **14-15**

Elkarrekin eraikitzen eta elkarrekin saretzen

Azkoitiko eta Azpeitiko bost ikastetxe eta dozenaka eragile publiko zein pribatu elkarlanean aritu dira, ikasgeletan ekintzailetasunarekin lotura duten baloreak sustatzeko. Iraurgi Berritzenek bultzatu du egitasmoa. **10-12**

telefono interesgarriak

UDALA

Zentralita:
943 08 00 80

Kexak eta iradokizunak:
902 54 01 20

Herritarren arretarako bulegoa:
943 08 00 80

Idazkaritza:
943 85 71 75

Alkatetza:
943 85 71 76

Kontuhartzailetza:
943 85 71 73

Kultura, hezkuntza eta kirolak:
943 85 71 70

Gizarte ongizatea:
943 85 71 74

Euskara:
943 85 71 75

Hirigintza:
943 85 71 72

Ingurumena:
943 85 71 72

Udaltzainak:
943 85 71 71

BESTE ZERBITZU BATZUK

San Jose egoitza/eguneko zentroa:
943 85 13 23

Jubilatuen etxea:
943 85 21 68

Elkargunea:
943 85 25 44

Aizkibel liburutegia:
943 85 08 98

Kultur etxea:
943 85 71 70

KZ gunea:
943 02 6710

Gazte Informazio Bulegoa:
943 02 60 27

Abarketatxo ludoteka:
943 08 38 00

Ertzaintza:
943 08 37 80

Osasun etxea:
943 007 610

Iraurgi Berritzen:
943 85 11 00

Mankomunitatea
943 85 73 19

herritarrei erantzunez

• Joanes Etxeberri kalean ez dago apenas argirik. Handik pasa behar izan naizenean bide erditik egin izan dut eta beti ere mesfidantzaz. Gainera, asteburuetan gehienbat, plazarako bidean, mutil askok bertan husten dituzte maskuriak eta susto pare bat izan ditugu nik eta nire lagunek. Kale sarreran argi bat jarriz gero erosoago eta lasaiago pasako ginateke neskak eta seguruenik mutilek beste lekuren bat aurkituko lukete txiza egiteko.

Kontziente gara kaleetan emakumeek badituztela hainbat puntu beltz eta argiztapen kontuak baino haratago doazela bizi dituzten segurtasun eza eta mehatxu sentsazioa; eta arrazoi duzu, kale horretan, zuk aipatzen dituzun baldintzek ez dute asko laguntzen. Asko dago egiteko zentzu horretan, bai hirigintza ikuspegitik eta baita emakumeenganako indarkeriaren aurkako lanean ere, prebentzioan eta sentsibilizazioan.
Guk ahal duguna egingo dugu puntu ilun edo beltz horiek detektatzeko eta horiei konponbidea emateko, baina horrekin batera, beharrezkoa iruditzen zaigu emakumeak elkartzea eta antolatzea, euren burua indartzeko eta egoera horiei aurre egiteko. Horretan saiatzen ari gara Berdintasun arlotik eta emakume mahai bat ere badugu martxan gai hauek jorratzeko eta bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Jakin ezazu zure eskaera kontuan izan dugula, zure kezka konpartitzen dugula eta gaiari irtenbideak bilatze aldera, gune hori hobeto argiztatuko dugula.

Azkoitiko Udala.

• Trenbidearen Zumardia 13-15

Trenbidearen Zumardian, 13-15 blokearen aurrean dagoen parkean zakarrontzi bakarra dago osorik, besteak puskatuta edo falta dira. Eta horrez gain, gune horretako jarlekuak kendu egin dituzue.

Jarlekuak barnizatu eta konpontzeko kendu zituen udal brigadak, eta orain, lan horiek eginda, berriro dagozkien tokian jarri dituzte. Zakarrontziei dagokienez, begiratu eta konpondu beharrekoak konpontzen ari dira, eta hondakinak behar bezala sailkatzeko egokitzen ere bai. Pixkanaka-pixkanaka herri guztiko zakarraontziak egokituko dira.

Azkoitiko Udala.

elkarrizketa - Ekaitz Etxezarreta, historialaria

artxibategia

“Gurean, langile kontzientzia eta eskubideen aldarria aparteko zaratarik gabe egin ziren”

Lan gatazkak, grebak... etengabe ageri dira komunikabideetan, eta Azkoitia eta inguruetako lantegietan ere ez da adibiderik falta. Krisi aro honetan eguneroko bihurtzen ari dira, ohiko. Baina mugimendu horrek erro bereziak izan ditu gurean. Hala erakusten du ‘Azkoitiko alpargata sektorea XX. Mende hasieran’ lanak. Ekaitz Etxezarreta azkoitiarrak egin zuen orain urte batzuk, eta udal webgunean ikusgai dago orain, Pako Pakoren artxibo atalean.

Nondik nora erabaki zenuen Azkoitiko alpargata sektorea aztertzea?

Historiako ikaslea nintzen, eta ikerketa metodo eta teknikak lantzeko ikasgaiaren barruan lan zehatz bat egiteko eskatu ziguten. Nik garbi nuen Azkoitiko gai bat jorratu nahi nuela, eta gure etxean amona abarketagintzan ibilia zenez, horri heltzea erabaki nuen. Gasteizen bizi nintzen orduan, eta hona bueltaka ibili nintzen, udal artxiboko materiala eta dokumentuak aztertuz.

Lan zaila izan al da?

Materiala nahikoa bazegoen lehendik, eta horietan oinarritu naiz. Batetik, Gurutz Garmendia azkoitiarrak idatzitako *Jasokunde kooperatiba oroituz* liburuak informazio ugari biltzen du eta bestetik, Luis Castelsen *Trabajadores en el País Vasco* liburuak ere gaia aipatzen zuen. Hortik abiatuta, artxiboan arakatu eta garai bateko langile eta bestelakoekin hitz eginda osatu nuen lana. Erraztasun eta laguntza asko izan nuen, eta alde horretatik, gustura aritu nintzen.

Eta ikertzen hasita, zerk harritu zaitu gehien?

Gurean langile borrokak izan zuen izaera bereziak. Langile kontzientzia eta eskubideen aldarria aparteko iraultza zaratatsurik gabe garatu ziren Azkoitian. Batetik, herritar askok etxean egiten zuen lan, fabrikara joan gabe, eta horrek eragin zuzena izan zuen. Bestalde, gizarte tradizionalista eta oso elizkoia zen Azkoitikoa mende hasieran, beste herriekin zeuden komunikazioak oso txarrak ziren, eta herrira heltzen ziren kanpoko berriak oso eskuineko prentsaren bitartez heltzen ziren. Sindikalismoa, sozialismoaren bidetik sortu bazen ere, gurean sindikatu katolikoak nagusitu ziren. Herri hauetan industrializazio prozesua eman arren, mantendu egin ziren gizarte aurreindustrialaren ohiturak eta eliza katolikoaren indarra eta boterea izan ziren nagusi.

Izaera politikoak ere izango zuen zerikusirik...

Bai. Hiru alderdi politiko zeuden Azkoitian XX. mendearen hasieran: integrista, karlista eta jeltzale edo nazionalista. Lantegietako nagusi eta Azkoitiko jauntxo gehienak alderdi integristakoak ziren eta lanerako hartzen zutena alderdi horri botoa ematera derrigortzen zuten. Halere, ezin dugu esan Azkoitiarrak inguru ezkertiarrera jotzerik nahi zutenik, garai hartako azkoitiarraren %90a giro tradizionalistan (bai jeltzale, karlista edo integrista) mugitzen baitzen. Jauntxo industrialaren helburu nagusia zen patronal eta langileen arteko harremanak ez aldatzea eta langilea lantegian kontrolatzeaz gain, bere eguneroko bizitza baldintzatzeraino ere heldu ziren.

Baina mugimendua, egon zen.

Bai, noski. Dokumentuen arabera, 1890ean egon zen greba batean bi herritar hil zituen Guardia Zibilak. Errepresioa handia zegoenaren seinale da hori. Baina XX. mendeari dagokionez, batik bat 1917tik aurrera hasi ziren langile eta patroien arteko negoziazioak. Mekanismoa honelakoa izaten zen: lehenengo, fabrika bakoitzeko langileak asanblada batean biltzen ziren eta euren eskaerak adosten zituzten. Fabrika desberdinetako iritzi eta erabakiak idazki batean jasotzen ziren, eta Azkoitiko alkateari bidaltzen zitzaizkion. Honek, patroiak deitzen zituen udaletxera, eta han langileek egindako eskakizunak aztertzen zituzten, eta onartu ala ez erabakitzen zuten. Gehienetan ez zituzten onartzen eskariak, baina langileak presioa egiten jarraitzen zuten eta grebak egitera ere iritsi ziren. Eta tentsio uneak egon zirela erakusten dute dokumentuek.

Bertako historiaz nahikoa ba al dakigu?

Ezetz esango nuke. Ikastetxeetan historia orokorra erakusten digute, baina Euskal Herrikoa oso gutxi. Unibertsitatean historia ikasketak egin nituen nik eta han ere oso gutxi jorratzen ziren bertako gaiak, atera hortik kontuak. Eta gurean ere gauza garrantzitsu eta bereziak gertatu ziren, guk ezagutu beharrekoak. Lastima da hezkuntzan horri behar bezalako garrantzia ez ematea. Halere, pixkanaka aldatzen ari delakoan nago. Guztion ardura da hori aldatzea eta ahalegina egin beharko genuke.

El historiador azkoitiarra Ekaitz Etxezarreta ha realizado un estudio sobre el sector alpargatero de Azkoitia a comienzos del siglo XX. En él, analiza los comienzos del movimiento obrero en el municipio. Pueden consultar el trabajo en la página web municipal, en el apartado del archivo municipal.

Herria txukundu eta azpiegiturak mantedu edo hobetzeko lanak egiten ari da Udala. Hona hemen azken hilabeteetako herri-lan garrantzitsuenak:

1.-

San Jose Egoitzako aire egokitua

San Jose Egoitzan aire egokitua jartzen hasi dira jada. Gune batzuetan martxan dago dagoeneko, eta hilabetea amaitzerako aurreikusitako leku guztietan egotea espero da. Zehazki, egoitzako egongela guztietan jarriko da aire egokitua, bertako egoiliarren erosotasuna eta bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Izan ere, uda partean asko berotzen dira eraikinaren parte batzuk, eta jakina da adineko pertsonentzat bereziki kaltegarria dela beroa. Horri aurre egiteko erabaki du Udalak aire egokitua jartzea.

El Ayuntamiento está instalando aire acondicionado en todas las salas de la residencia San José, con el objetivo de mejorar la calidad de vida de las personas residentes en ella.

Aurrekontua: 200.000 euro.

2.-

Musikaguneko obrak, martxan

Musika eskola, banda eta herriko rock taldeak bateratuko dituen Musikagune berria eraikitzeko lanak hasi dira jada. Lokal hori husten aritu da brigada ekainean, eta uztail hasieran hasi dira Altuna y Uriako langileak obrak egiten, enpresa horri esleitu baitzaizkio lanak. Kontratazioaren arabera, sei hilabeteko epea du Altuna y Uriak lan horiek bukatzeko eta, ondo bidean, urte amaierako oporraldian egingo da leku aldaketa.

Han comenzado las obras del nuevo Musikagune. Está previsto que terminen para finales de año.

Aurrekontua (obrena): 753.420 euro.

3.-

Jubilatuen tabernako komuna

Jubilatuen tabernako emakumeen komuna berritu du Udalak, irisgarritasun baldintzak behar bezala bete ditzan. Hilaren hasieran amaitu dituzte lanak, eta dagoeneko erabilgarri dago komun berria

El Consistorio ha renovado uno de los baños del hogar de los/las jubilados/as.

Aurrekontua: 18.000 euro.

4.-

San Martinerako espaloia, bukatuta

San Martinerako espaloia berritu du Udalak. Espaloia zabaldu du, argiteria hobetu, eta baranda berria jarri. Guztira 100 metro inguru espaloi berritu dira.

Terminada la renovación de la acera que va hacia San Martín.

Aurrekontua: 120.000 euro.

5.-

Kanpoko igerilekuko txiringitoa

Hainbat herritarrek eskatutakoari erantzunez, txiringitoa jarri du Udalak aurten kanpoko igerilekuetan. Dagoeneko martxan da, eta harrera ona ari da izaten.

Se ha instalado un chiringuito en las piscinas descubierta de Ugarte-Igaran

Aurrekontua: 15.000 euro.

6.-

Tenis pistetako bat, berrituta

Txerloiko tenis pistetako bat berritu egin du Udalak. Pista horretako zorua eta sarea berritu ditu, eta horrez gain, bi pisten arteko sare bat ere aldatu dute.

Se ha renovado una de las pistas de tenis de Txerloia.

Aurrekontua: 30.000 euro.

7.-

Baserri bideak garbitzen hasita

Baserri bideetako belarrak mozten hasi da jada brigada eta uda amaitzerako eremu guztiak garbitzea aurreikusten du. Aurten bide bazterrak altuera handiagoan garbituko dituzte, eta goiko parteak ere joko dituzte.

La brigada ya ha comenzado a desbrozar los caminos de las zonas rurales

erreportajea - Partaidetza

Hasi dira moitzen

Udalaren eta gazteen arteko elkarlanerako aurreneko zubiak ezarri ditu ‘Gaztien herrixe, moiu ipurdixe’, partaidetza prozesuak. Udazkenetik aurrera, Gazte Eguna, hitzaldiak eta aisialdirako tailerrak antolatuko dira

Partaidetzak eta elkarlanak eman ditu aurreneko fruituak: Gaztien herrixe, moiu ipurdixe prozesuan aritu diren gazteek hala eskatuta, udazkenetik aurrea ekintzak zehatzat antolatzen hasiko dira Udala eta gazteak elkarlanean. Urte erdi iraun duen prozesu baten aurreneko emaitza da, baina ez bakarra: udalaren eta gazteen artean elkarlanerako aurreneko zubiak sortzeko balio izan du prozesu horrek, eta hori da “benetan inportanteena” prozesuan parte hartu dutenentzat.

Iazko abenduan jarri zen martxan Gaztien herrixe moiu ipurdixe, Azkoitiko gazteen diagnostiko kuantitatibo eta kualitatiboa egiteko, gazte lokalen egoera aztertzeko, gazteen parte-hartzea, elkar ezagutzea eta saretzea sustatzeko eta gazteen eta udalaren arteko harremanak sendotzeko. Prozesua dinamizatzeko talde eragile bat sortu zen, gazte, teknikari eta politikariekin, eta koadrilla eta lokal ezberdinetako kideekin elkarrizketak egin dira, gazteekin topaketak ere bai eta udal teknikariekin bilerak ere bai. Guztira, 17 eta 22 urte bitarteko 670 gazte daude Azkoitian, eta horietatik 360k hartu dute parte partaidetza prozesu honetan, modu batean edo bestean.

> Abenduaz geroztik hainbat bilera egin dituzte gazteek, eragileek eta Udalak

Diagnostikoa eratzea izan da aurreneko lana, eta honako argazkia utzi du diagnostiko horrek:

- Euskara da nagusi kuadrilletan baina gero eta joera handiagoa dago gaztelaniarako.
- Denbora librea lagunekin, parrandan, kirola egiten, zinean edo bikotearekin pasatzen dute.
- Kalera normalean asteburutan ateratzen dira. Herritik kanpora, berriz, ikastera, festetara edo erosketak egitera ateratzen dira.
- Gazteen arteko harremanak normalean kuadrilatara mugatzen dira, eta hortik kanpo beste elkarte edo bide batez ezagutzen direnekin; atzerrian jaiotako gazteekin orokorrean ez dute harremanik.
- Lokalei dagokienez, lokal gehienetako kideek diote toki horiek ez daudela egoera onean, baina ez dute araudia zehazteko premiarik ikusten, nahiz eta lokal jabeekin akordio batera iristeko beharra badagoela aipatu batzuk.
- Ohiko kirol edo kultur elkarteez haratago, Azkoitian parte-hartzeko nahiko ohitura eskasa dagoela uste dute gazteek. Orokorrean pasotismo handia dagoela esan dute, jendeak gauzak eskatzen dituela baina gero boluntarioki ezer egiteko prest ez daudela gehienak.
- Herrian aisialdirako ekintza gehiagoren premia dagoela uste dute, eta parte hartzeko eta jendea kalera ateratzeko gauza gehiago egitea nahiko lukete. Kontzertuez gain, antzerki, dantza, karaoke nahiz bestelako kultur ekintzak aste barruan antolatzea eskatu dute.
- Azpiegitura aldetik gazteentzat leku propio bat edukitzea nahiko luketeela ere adierazi dute.

Diagnostiko horretatik abiatua, gazteek hainbat proposamen egin dizkiete udaleko teknikariei, eta honakoak irailetik aurrera egiteko lehenetsi dituztenak: Gazte Eguna antolatzea, gazteen ezagutzak aprobetxatuz aisialdirako hainbat tailer martxan jartzea eta azkenik, ikasketak aukeratzeko garaian edo karrera bat amaitu eta lanerako orientazio premian daudenentzat gazteek eurek emandako hitzaldiak antolatzea. Ekintza hauetaz gain, eskatutako beste batzuk dagoeneko martxan jarri dira edo laster jarriko dira: Zinerako bonoak, lan eskaintzetarako udal mailako lan zerrenda osatzea eta igerilekuetan txiringitoa jartzea.

> Topaketetan bildutakoa udaleko alor guztietan integratzea da helburua, politika integralak egiteko

Elkarlana bideratzeko egitura ere finkatu dute. Batetik, gazteen topaketa talde handia egongo da eta bertan ahalik eta herriko gazte gehin bilduko dira, urtetik urtera egiten den lana aztertzeko, baloratzeko eta emaitzen inguruan hausnartzeko. Bestetik, berriz, berariazko taldeak egongo dira ekintza zehatzak antolatu eta martxan jartzeko. Talde hauek gazteek eta ekintzarekin lotuta daude udal teknikariek osatuko dituzte eta udazkenean bertan hasiko dira martxan: irailetik aurrera, Gazte eguna, hitzaldiak eta aisialdirako tailerrak antolatzeko taldeak abiatuko dira.

Parte hartu dutenek “oso positibotzat” jo dute egindako lana, baina onartu dute gazte gehiago inplikatzea espero zutela. Lokaletako gazteak elkarrizketetan bakarrik hartu dute parte eta orain berariazko taldeetan parte hartzea izango da hurrengo erronka. Zubiak eraiki dira eta bideari gogotik ekin diote batzuk. Orain ahalik eta gehien batzea falta da. Deia egin dute gazteek: Festie nahi? Ba moiuai!

El proceso de participación ‘Gaztien herrixe, moiu ipurdixe’ ha servido para establecer puentes de colaboración entre el Consistorio y la juventud. Tras seis meses de proceso en el que han participado más de 360 jóvenes, las/los participantes han elaborado un diagnóstico sobre la situación de la juventud en el municipio, han priorizado sus necesidades y han concretado el modo de responden a dichas necesidades desde el Ayuntamiento. Como resultado de esta colaboración, el Consistorio y las/los jóvenes llevarán a cabo diversas actividades a partir de septiembre: organizarán el Gazte Eguna y pondrán en marcha varios talleres. Se trata de los primeros pasos para establecer una cultura de colaboración permanente e integral entre la juventud y las instituciones municipales.

Beste 25 kontratazio

Enplegu planaren barruan eta Gipuzkoako Diputazioak emandako diru-laguntzei esker, beste 25 langabeturen kontratazioa bideratu dituzte Azkoitiko, Azpeitiko, Zestoako, Errezilgo, Aizarnazabalgo eta Beizamako udalek. Sozio-ekonomia alorrean udalen eskumenak mugatuak izanagatik, enplegua sustatzeko ahalik eta baliabide gehien erabiltzeko konpromisoa hartu zuten orain urtebete, eta enplegu orientazio zerbitzua eta hezkuntza orientazio zerbitzuak ere zabaldu dituzte. Ahalegin horren fruitu izan dira kontratazio horiek.

Jada egindako kontratazioak

Aipatutako 25 kontratazio horietatik 20 jada egin dira eta kontratatutako pertsonak dagoeneko ari dira lanean. Honakoak dira orain arte sei udalen artean egindako kontratazioak:

Batetik, Diputazioaren laguntzen bidez, lau pertsona kontratatu dira:

- Kidetuz egitasmoko teknikari laguntzailea.
- Enpresa berrien kontsolidaziorako teknikari laguntzailea.
- Hirigintzako eremu lanetarako teknikari laguntzailea.
- Herri lanetarako peoia.

Bestetik, Enplegu planaren baitan, beste 17 lagun kontratatu dira, honako proiektuak garatzeko:

- 8 pertsona EkoBailara proiektua garatzeko. Horietatik sei, jasangarritasunaren arloan kontzientzia soziala sortu eta bailarako baliabideak balorean jartzeko; bat lehen sektoreko produktuen kontsumoa sustatzeko eta beste bat, Turismo sailean aritzeko.
- Pertsona bat Forma Teu nazioartea proiektuaren barruan, enpresen nazioartekotze eta kudeaketa komertzialean aritzeko, enpresa txikiei soluzio praktikoak eman eta aholkulari lanak egiteko.
- Bi pertsona Forma Teu TIC proiektuaren barruan, Iraurgi berritzenen Online bidezko plataforma baten kudeatzaile lanak egiteko.
- Beste bat, Azkoitiko Udalean Gizarte zerbitzuen barne zein kanpo informazioa kudeatzeko software programa bat garatzeko.
- Pertsona bat UrolEkinnen barruan, eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatu eta ekintzailetasun ekosistema bat sortzeko.
- 4 pertsona Azpeitia ekitenen barruan.

Egiteko dauden kontratazioak

Eta oraindik beste bost langabetu kontratatuko dira hil honetan. Honakoak dira postuak:

- 3 pertsona Fabrika Tu proiektuaren barruan, Urola erdiko ehun industrialaren lehiakortasun gaitasunak identifikatu eta teknologia asistentzialean eta teknologia garbietan dauden aukerak aztertzeko. Ingenieritza teknikoan edo goi mailakoan lizentziatuak.
- Pertsona bat enpresen nazioartekotze eta kudeaketa komertzialean aritzeko, enpresa txikiei soluzio praktikoak eman eta aholkulari lanak egiteko.
- Pertsona bat TIC proiektuak garatzeko.

Hil honetan egingo dira kontratazio horiek eta interesatuek *info@iraurgiberritzen.net*-era idatzi behar dute informazio eske, edo 943 85 11 00ra deitu.

Los Ayuntamientos de Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama, Aizarnazabal y Errezil han puesto en marcha otras 25 contrataciones a través del plan de empleo comarcal y con las subvenciones de la Diputación Foral de Guipúzcoa. Ya se ha contratado a 20 personas y en breve saldrá las convocatorias de otras cinco contrataciones. Para más información: Iraurgi Berritzen (943 85 11 00).

Ideia eta negozio berriak martxan jartzeko, 10.000 eurora arteko laguntzak

Ekintzailetasuna sustatzeko diru-laguntza sorta berria abiatu du Azkoitiko Udalak, Iraurgi Berritzenen bidez

Langabezian egon eta enpresa edo negozioren bat jartzeko ideiaren bat duten herritarrek 10.000 eurora arteko diru-laguntzak izango dituzte hemendik aurrera. Izan ere, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek, Iraurgi Berritzenen bidez, 150.000 euro bideratuko dituzte proiektu ekintzaileak sustatzeko.

Hiru motatako laguntzak dira, norbanako nahiz enpresentzat:

- 2.500€-ko diru-laguntza, edozein izaera juridikopean sorturiko enpresa jarduera sortzeagatik, jarduera burutzen duena pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa dela ere.
- 5.000€ko diru-laguntza edozein izaera juridikopean sortzen den enpresa jarduera gizarte ekonomiakoa bada (lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiaketa komunitariorako kooperatibak eta lan-sozietateak).
- Iraurgi Lantzen, SAk izaera estrategikoa edo berritzailea duten jarduerak garatzeko objektu soziala duten enpresa berrien sorrera bultzatzeko laguntza bereziak eman ahal izango ditu, gehienez 10.000€ enpresako. Laguntza hau jasotzeko ez da beharrezkoa izango langabezian izatea.

Dagoeneko eskatu daitezke diru-laguntza horiek, Iraurgi Berritzenen bidez (Intsaustik Jauregian; telf: 943 85 11 00). Oinarriak udal webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude kontsultagai.

Los ayuntamientos de Azkoitia y Azpeitia han puesto en marcha subvenciones destinadas a promover la generación de empleo mediante el fomento del emprendimiento en especial en economía social y en actividades de carácter estratégico o innovadores. Son subvenciones de hasta 10.000 euros, para aquellas personas desempleadas que tengan algún proyecto entre manos y tienen problemas de financiación. Para más información, Iraurgi Berritzen (943 85 11 00)

Hemenbuy.com, saltoki txikiak Interneten

Internet konpetentzia baino aukera izan daiteke dendari txikientzat, eta aukera hori baliatzeko tresna berri bat garatu du Iraurgi Berritzenek bailarako dendarientzat. *Hemenbuy.com* on-line merkatua sortu du, Azkoitia eta Azpeitiako saltokiek euren denda birtuala bertan garatzeko. Denda bakoitzak bere on-line saltokia sortzea garestia da merkatarientzat, eta plataforma bateratu hau zailtasun hori gainditzeko sortu da: Azkoitia eta Azpeitiako udalen diru-laguntzen bidez eskuragarriagoa izango da.

Informazio gehiago: 636 298 520 telefonoan edo *eazkune@iraurgiberritzen.net* helbidean

Iraurgi Berritzen ha desarrollado una plataforma on-line para que el pequeño comercio pueda vender sus productos en internet. Para más información: 636 298 520 o eazkune@iraurgiberritzen. net

Ikasturtean egindako lana aurkezteko, topaketak egin zituzten ekainaren 20an Azkoitiko udaletxean.

Etorkizuna, bertatik

Azkoitiko eta Azpeitiko bost ikastetxe eta dozenaka eragile publiko zein pribatu elkarlanean aritu dira, ikasleen artean ekintzailetasunarekin lotura duten baloreak sustatzeko

Elkarrekin eraikitzen proiektuak bere ibilbidearen lehen pausoa eman du. Iraurgi Berritzenek sustatuta, amaitu berri den ikasturtean jarri da aurrenekoz martxan Azkoitiko eta Azpeitiko bost ikastetxeetan, eta zailtasunak zailtasun, "oso aberasgarritzat" jo dute esperientzia bai ikasle, bai irakasle eta baita eragileek ere. Proiektuaren emaitzak aurkezten Azkoitiko udaletxean izan berri dira parte-hartzaile guztiak, eta datorren urtean jarraitzeko asmoa erakutsi dute.

Elkarrekin Eraikitzen proiektua, Iraurgi Berritzenen Ezagutza Sarearen barnean kokatzen da. Sare horretan, hezkuntzaren alorrean, elkarlanean ari dira bailarako ikastetxeak, eta elkarlan horren fruituetako bat da proiektuak. 2012an hasi zen mamitzen: lan talde horrek gazteengan ekintzailetasun baloreak sustatzeko beharra zegoela ikusi zuten ordutan, eta hortik abiatuta Elkarrekin Eraikitzen proiektua egituratu eta martxan jarri dute.

200 ikasle, 15 irakasle eta 30 eragile sozio-ekonomiko baino gehiagok hartu dute parte egitasmoan

Helburua argia da: ikasleen artean ekintzailetasun baloreak sustatzea, egiteko modua berritzaileak erabilita. Talde lana, iniziatiba eta komunikazio gaitasuna landu dituzte, besteak beste, eta horretarako ezinbestekoa izan da irakasleei metodologia berritzaileen inguruan formazioa eskaintzea. Proiektu honen bidez, ikasleek eskualdeko egoera sozio-ekonomikoaren berri izan dute eta proiektuaren garapenean protagonista izan dira, etorkizunean dagokien aukeraketa egiterako orduan eskualdeko ahalik eta informazio gehien izan dezaten. Eta bertako eragileekin zuzenean eta aurrez-aurre egin dute lana, proiektu errealak landuz eta enpresa, udal, orientazio zentru nahiz bestelako eragileekin elkarlanean arituta.

Hala, esaterako, Talleres Arrieta S.A.-rentzat merkatu berriak non eta nola topatu landu dute batzuk; beste batzuk, berriz, enpresa propio bat sortzeko eman beharreko pausoak aztertu dituzte, eta beste batzuk, etorkizuneko ikasketak aukeratzeko bide egokienak landu dituzte. Kasu errealak izan dira guztiak. Besteak beste, elkarrizketa ugari egin dizkiete enpresetako, lehen sektoreko, merkataritzako, turismoko, landa garapeneko edo osasun arloko eragileei.

Guztira 15 irakasle, 200 ikasle eta 30 eragile baino gehiagok hartu dute parte. "Proiektu pilotua izan da, eta hasieran ikasturtean eta ohiko ikasgaien artean sartu eta garatzen lanak izan baditugu ere, emaitzarekin oso gustura gaude". Hala adierazi dute ikastetxeetako arduradunek. Ikasteko asko dute, eta ez ikasleek bakarrik, baita irakasle, ikastetxe, eragile nahiz sustatzaileek ere. Baina gogorik ez zaie falta. Datorren ikasturtera begira daude jada.

Noraezetik bidea egitera

"Hasieran galduta, baina gero gustura". Bat etorri dira 'Elkarrekin eraikitzen' proiektuan parte hartu duten ikasle guztiak esperientzia deskribatzerakoan. Azkoitiko hiru ikastetxek hartu dute parte, Floreaga ikastetxeak, Urola Ikastolak eta Xabier Munibe Ikastola. Asko ikasi dutela diote, eta batik bat, enpresetako ordezkari edo bestelako eragileekin egindako elkarrizketa eta elkarlanarekin gozatu dutela gehien. Berriz proiektuan parte hartzeko aukera izanez gero, "zalantzarik gabe" egingo luketela ere badiote.

Floreaga ikastetxea

'Hasieran galduta ibili ginen, nora jo ez genekiela; baina azkenean esperientzia oso baliagarria izan dela ikusi dugu. Gainera, enpresekin harreman zuzen hori edukitzea oso aberasgarria izan da".

Urola Ikastola

"Lana ondo egiteko ordu gutxiegi izan ditugula esango genuke, eta gehiago eta hobeto egiteko gogoz gelditu gara. Hurrengo urterako, jarraikortasun gehiago izatea nahiko genuke".

Xabier Munibe ikastola

"Interesgarria izan da benetan , batik bat lana egiteko modua, gaiak landu ditugun era, jendeari egindako elkarrizketak... ikasle guztiei gomendatuko genieke parte hartzea".

Informazio gehiago: *www.elkarrekineraikitzen.wordpress.com*

Cinco centros educativos de Azkoitia y Azpeitia han desarrollado el proyecto pionero "Elkarrekin Eraikitzen", junto a decenas de empresas y agentes socioeconómicos de la comarca. Impulsado por Iraurgi Berritzen, el objetivo del proyecto es que las/los escolares conozcan la realidad socioeconómica de la comarca e impulsar los valores relacionados con el emprendimiento en las aulas. Cerca de 200 escolares han desarrollado proyectos concretos basados en situaciones reales y han presentado sus proyectos en el salón del plenos del Ayuntamiento. Para más información: www.elkarrekineraikitzen.wordpress.com

alderdien ahotsa

bildu

Krisi ekonomikoak gogor jo du gurean. Azkoitian ez ezik, baita eskualdean ere. Eta eskualdetik harago, nola Euskal Herrian ala nazioartean. Bizi dugun krisi ekonomikoa, finean, eredu ekonomiko baten porrotaren ondorio dela uste dugu; eredua bera dago krisian.
Sarri, zenbakiak erabiltzen dira krisi ekonomikoaren tamaina adierazi eta neurtzeko. Herritarrei leporatu izan zaigu norbere aukeren ganetik bizi nahi izana, eta horrela, ekonomia krisiaren ardura herritarron gainean jarri nahi izan da. Batzuk eragin duten egoera honek ondorio zuzenak ditu herritarrengan. Azkoitiar ugarik momentu zaila bizi dituzte eta asko dira krisiaren eragina sufritzen ari direnak.
Errealitate honen aurrean, inoiz baino elkartuago egon behar dugu. Inor baztertuko ez duen Azkoitia eraikizeko, behar sozial larriak dituzten herritarrei babesa eskaini eta laguntzea da egiteko dugun lehen gauza. Baina aldi berean, egoera honi buelta emateko bideak urratu behar ditugu; denon artean, elkarlanean. Bide horretan, ekintzailetasuna garrantzitsua da: ekintzailetasun baloreetan oinarritu zen duela urte asko kooperatiben mugimendu arrakastatsu hura; baita, herrigintzako hainbat proiektu, familia enpresa txiki eta ertain ere.
Orain, badugu erronka argi bat eskuartean; herritar oro kontutan hartuko duen eredu ekonomikoa eraikitzea. Eta horretan, Elkarrekin Eraikitzen proiektuak ekarpen ineteresgarria egin dezake.

EAJ PNV

Azkoitiko EAJ/PNVk Urola erdiko Sustapen Ekonomikorako oinarriak adosteko lan egin du. Dibertsifikazio estrategi honen lerro garrantzitsuenak ondorengoak izan dira;

1. Ehun ekonomikoaren dibertsifikazioa sustatzen lagundu bailarako enpresei.
2. Bailarako enpresa arteko elkarlanaren apustua.
3. Enpresen Internazionalizazio prozesuak sustatzen lagundu
4. Formakuntza.
5. Eskualdeko egokitzapena, eragileen parte-hartzea eta elkarlana indartzeko, Proiektu kolektibo estrategikoak sustatu.
6. Zailtasun Juridiko-Ekonomikoak dituzten enpresentzat Aholkularitza zerbitzuak Eskeini.
7. Ekintzailetasuna Sustatu: Ekintzailetasuna modu pasibotik, aktibora pasatuz. Enpresa berriak sortu nahi dituzten ekintzaileei laguntzak eskainiz, bai ekonomikoak, bai hainbat zerbitzurenak.

Apustu estrategikoa baldin bada ere, badirudi denok garrantzi ezberdina ematen diela gai honi. Zergatik azpeitiko udalak 500.000 gastatuko ditu bertan enpresak ireki nahi dituzten herritarrei laguntzen eta Azkoitiko udalak 75.000 besterik ez?

PSE-EE PSOE

PSE-EE PSOE no ha emitido ninguna opinión sobre este tema.

Azkoitia BAI

Azkoitia Baik atal honetan ez parte hartzea erabaki du.

albistea - Andremaixek

Berrikuntzak egonkortzen

Andramaxek herrikoiago eta parte-hartzaileagoak nola egin hausnartu dute azkoitiarrek

Herritarren proposamenak aztertzeko egindako bilera bat. Argazkia: Ane Olaizola.

Gero eta gertuago dago abuztua; gero eta gertuago daude Andramaxek, eta festak prestatzen buru-belarri dabiltza zenbait azkoitiar eta Udala. Izan ere, urtetik urtera jai parte-hartzaileagoak eta biziagoak egiteko erronka dute, eta horretarako partaidetza prozesu bat egin da aurten ere. Ehunka ekarpen egin dituzte herritarrek, eta guztiak aztertu ondoren, egingarrienak eta egokienak aukeratzen ari dira orain.

Andramaxek nola hobetu pentsatzeko hiru galdera egin zaizkie herritarrei: Zein ekintza berri proposatuko zenuke aurtengo Andramaxetarako? Urtero egiten diren ekintzak beste zein modu berritzaileago batean egingo zenituzke? Eta, festen egutegi, iraupen eta lekuen inguruan zein berrikuntza proposatuko zenituzke? Galdetegi hori herriko eragile eta talde guztiei banatu zaie, eta gero norbanakoek ere izan dute aukera Internet bidez euren proposamenak egiteko. Ekarpen guzti horiek bildu eta bilera bat egin da ondoren, eta bertan proposamen horietatik egokienak lehenetsi dituzte herritarrek.

Denetariko proposamenak egon dira, baina gehienak iaz martxan jarritako berrikuntzak indartzearen aldekoak izan dira: hala, besteak beste, haur eta gurasoen arteko herri bazkaria mantentzea eta bazkalosteko ekintzak sendotzea erabaki dute azkoitiarrek. Euskal kultura eta euskal folklorearen emana indartzea ere adostu dute eta erromeri, Larrain dantza eta Euskal Eguna antolatuko dira aurtengoan. Berrikuntza gehiago ere badaude: helduentzat apar festa, castellersak…

Baina kezkak ere agertu dira, batik bat festetan izaten diren jarrera ezegokien inguruan. Hori dela eta, jaietarako bizikidetza dekalogoa egingo da, herriko eragile ezberdinekin, berdintasunean, elkarbizitzan, errespetuan eta gizalegean oinarritutako jaiak aldarrikatzeko.

Gertu daude Andramaxek, baina oraindik hilabete pasatxo gelditzen da eta egitarau oso ixten ari dira udala eta jaien batzordea. Lana badago egiteko, eta herritarrak elkarlanera animatu nahi ditu Udalak.

El Consistorio ha llevado a cabo un proceso de participación ciudadana con el objetivo de mejorar las fiestas de Andramari. Entre otras cosas, se ha priorizado fortalecer las actividades que implican la participación de las personas de distintas edades, aumentar la presencia de la cultura y el folclore vasco, y crear un decálogo de convivencia, respeto e igualdad.

Mugikorretarako ere bai

Andramaxetako programa-liburuxka etxe guztietara iritsiko da aurten ere, urtero legez. Liburuxka horrek informazio guztia jasoko du, baina, urtero legez, kalera irtendakoan, une horretan zehazki zer dagoen gogoratzea kostatu egingo zaigu. Hori hobetzeko, festetako programaren mugikorrerako bertsioa aterako du Udalak. App berezia prestatzen ari da eta aplikazio hori mugikorrera deskargatzen duenak programaren nondik norakoak jasotzeaz gain, iritziak eta bestelako ekarpenak egiteko aukera ere izango du.
El Ayuntamiento está desarrollando una app con el programa de fiestas.

Kartelar bozketa, asteburuan

Festak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa martxan da, eta asteburuan egongo dira ikusgai aurkeztutako kartelak Elkargunean, herritarrek botoa eman eta gustukoena aukeratzeko (uztailaren 12an eta 13an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara). Kartela adituen epaimahai batek aukeratuko du, baina herritarren iritzia kontuan izango da.
La exposición para elegir el cartel de fiestas será este fin de semana, en el Elkargune (días 12 y 13).

azkoitiangaro

HONDAKINEN BILKETA MISTOA ZERTAN DATZA?
¿En qué consiste el sistema de recogida de residuos mixto?

EDUKIONTZIAK / *Contenedores*

KOLOREA *Color*	HONDAKIN MOTA ZER BOTA *Tipo de residuo*	NOIZ BOTA *Día de recogida*	TXARTELAREKIN EDO TXIPAREKIN (BAI/EZ) *Con tarjeta /Chip. SI/NO*
MARROIA *MARRÓN*	Materia organikoa *Orgánico*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	BAI
HORIA *AMARILLO*	Ontzi arinak *Envases ligeros*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	EZ
URDINA *AZUL*	Papera/kartoia *Papel/Cartón*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	EZ
BERDEA *VERDE*	Beira *Cristal*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	EZ
GRISA *Gris*	Pardelak *Pañales*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	BAI
LARANJA *NARANJA*	Olioa *Aceite*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	EZ
BERDE ILUNA *VERDE OSCURO*	Arropa *Ropa*	Edozein egunetan/ordutan *Cualquier día y hora*	EZ

ATEZ ATE / KUBOA *Puerta a puerta, en cubo*

KOLOREA *Color*	HONDAKIN MOTA *Tipo de residuo*	NOIZ? *¿Cúando?*	NOLA? *¿Cómo?*	NON? *¿Dónde?*
GRISA *GRIS*	Errefusa (birziklatu ezin daitekeena) *Resto (lo que no se puede reciclar)*	Astearteetan 20:00-24:00 *Los martes (20:00-24:00)*	Banatuko den kubo grisean *En el cubo gris*	Zure bebarruari dagokion txintxilikarioan *En los colgadores correspondientes a tu portal*

BILKETA BEREZIAK / *Especiales*

Bolumen handikoak: ostegunetan 20:00etatik aurrera edukiontzi puntuetan utzi behar dira.
Voluminosos: deberán ser depositados junto a los contenedores, los jueves, a partir de las 20:00.

BESTE ZERBITZU BATZUK GARBIGUNEA / *Otros servicios. Garbigune*

Obra hondakinak, egurrak; txatarra; etxetresna elektrikoak; gurpilak; pilak; bateriak; etxeetako hondakin arriskutsuak. Azkoitian, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era; eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara. Azpeitian, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 18:00etara; eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.
Residuos de obras; maderas; chatarra; electrodomésticos; ruedas; pilas; baterías; residuos domésticos peligrosos.

MERKATARITZA/OSTALARITZA /*Comercio/hostelería*

Merkatariak errefusaren kuboa dendaren kanpoan utzi beharko dute astearteetan 20:00etatik aurrera.
Tendrán que depositar el cubo de la fracción resto fuera de su establecimiento, los martes, a partir de las 20:00.

LANDA EREMUA / *Zonas rurales*

Auzo bakoitzak bere ekarpen gunea izango du. Gune hauetan edukiontzi guztiak egongo dira.
Cada barrio tendrá su punto de recogida, con todos los contenedores.

SISTEMA MISTOA EZARTZEKO FASEAK
Fases de implantación del sistema mixto

MATERIALA BANATZEA (KUBO GRISA, TXARTELA ETA BIRZIKLATZEKO GIDA)
Reparto de material (Cubo gris, tarjeta/chip y guía de reciclaje)

EGUNA / *día*	NON / *lugar*	ORDUTEGIA / *horario*
UZTAILAK 16,17,18 *16,17 y 18 de julio*	ELKARGUNEAN *Elkargune*	10:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara
UZTAILAK 19 *19 de julio*	ELKARGUNEAN *Elkargune*	10:00etatik 14:00etara

OHARRA: ETXERA IRITSIKO ZAIZUN GUTUNA ERAMAN BEHARKO DUZU MATERIALA JASO AHAL IZATEKO.
Aviso: Para recoger dicho material será necesario presentar la carta que recibirás en tu domicilio.

* Egun horietan ezin baduzu jaso, Hondakinen bilketa selektiborako informazio bulegotik pasatu (herriko plazan) eta han emango dizute.
* Hondakin organikoa sailkatzeko poltsa konpostagarriak eta kubo marroia oraindik jasotzeke badituzu, uztailaren 19ra arte izango duzu jasotzeko aukera, Elkargunean, banaketa egunetan.
** Si no puedes acudir esos días, puedes recoger el material en la Oficina de información para la recogida selectiva de residuos (en la plaza mayor).*
** Las personas que aún no ha recogido el cubo marrón y las bolsas para el orgánico deberán hacerlo en el Elkargune, en los días de reparto, antes del 19 de julio.*

UZTAILAk 16tik aurrera: edukiontzi grisak kaletik kenduko dira eta pardelentzako edukiontziak jarriko dira. *A partir del 16 de julio se retirarán los contenedores grises de la calle y se instalarán los de los pañales.*

UZTAILAK 22 (asteartea):
Errefusaren atez ateko lehen bilketa egingo da. Hemendik aurrera asteartero izango duzu kubo grisa ateratzeko aukera. *El 22 de julio (martes) se comenzará a recoger la fracción resto puerta a puerta.*

TXARTEL edo TXIPAREN ERABILERA
Uso de la tarjeta/ chip

Nork izango du txartela?
Etxebizitza bakoitzari txartel bat banatuko zaio eta txartel bakoitzak zenbaki bat izango du, kubo grisaren zenbaki bera.
Cada domicilio tendrá su tarjeta, con un número.

Zertarako balio du txartelak?
Edukiontzi marroia eta pardelen edukiontzia irekitzeko.
La tarjeta sirve para abrir el contenedor marrón y el de los pañales.

Zerbait egin behar duzu txartelarekin?
Edukiontzi marroia irekitzeko ez duzu ezer egin behar. Hauek irekitzeko prest banatuko dira.Pardelen edukiontzia erabili behar baduzu materiala jasotzen duzunean esan eta jarraitu beharreko pausuak azalduko dizkizuegu.
Las personas que sólo la utilicen para el contenedor marrón no tendrán que activar la tarjeta, ya que estará activada. A las personas que vayan a utilizar el contenedor de pañales se les daran las indicaciones necesarias el día de reparto de material.

Noiz hasiko da txartela funtzionatzen?
Pardelen edukiontzia abuztutik aurrera irekiko da txartelarekin. Edukiontzi marroia, berriz, irailetik aurrera.
El contenedor de los pañales necesitará tarjeta a partir de agosto y el contenedor marrón, a partir de septiembre.

Istorioak historia bihurtzeko ahaleginetan

Matadeitik abiatuta, azken ehun urtetako Azkoitiko herri historia ikertzen ari da Olatz Aranguren, udalaren bekari esker

Goizetan udal artxibora joanez gero, han topatuko duzu Olatz Aranguren. Azken ehun urteotako Azkoitiko matadeixen inguruko dokumentu eta artxibo historikoak aztertzen ari da, buru-belarri, zer aurkitu eta zer deskubrituko: “Kontu bereziak aurkitzen ari naiz, haragia edukitzeak garai batean zuen garrantziaz jabetzen, ganaduzale eta harakinen artean zeuden ikamikak deskubritzen...”, azaldu du Arangurenek. Azkoitiko Udalaren Matadeiko beka jaso du Arangurenek eta lan hori garatzen hasi da dagoeneko. Iragan otsailean aurkeztu zuen beka Udalak, Matadeiko eraikinak 100 urte bete dituela eta herri historia jaso eta liburu bat sortzeko; historia ofizial eta izen handiena baino, herritarrena bildu eta plazaratzea du helburua beka horrek, eta ondorioz, baita Arangurenen lanak ere.

Amagoia Gurrutxaga kazetariak, Jose Luis Otamendi idazleak eta Imanol Mujika udal artxiboko arduradunak osatu dute beka emateko epaimahaia, eta Olatz Arangurenen proiektua “osoena” delako aukeratu dute. Zehazki hiru ardatz ditu aukeratutako lanak: batetik, Matadeiko eraikinak 100 urtean izan duen bilakaera abiapuntu hartuta, mende honetan hiltegiaren eta herritarren artean egon den harremana jasoko du, harekin harreman zuzena izan dutenen ahotik; bestetik gizaldi honetan Azkoitiak berak bizi izan dituen aldaketa sozio-ekonomikoak aztertuko ditu; eta azkenik, azken hamarkadetan Matadeixek eragile kultural eta asanblada gisa izan duen bilakaera ere jasoko du. “Hiru ardatz potolo dira, eta hiruren argazki orokor bat ateratzen saiatuko naiz, gehiago sakontzen hasiz gero denbora gainera etorriko baitzait”, adierazi du Arangurenek. Izan ere, urtebete dauka bere lana bukatu eta entregatzeko, eta denbora ahalik eta ondoen aprobetxatu nahi du.

Ahalik eta informazio gehien biltzeko, kontatzeko zerbait dutenei beregana jotzeko eskatzen die Arangurenek

Artxiboko dokumentuez haratago joan nahi du, ordea, Olatz Arangurenek, eta azkoitiarren bizipenak, kontakizunak eta istorioak bildu nahi ditu. “Matadeixen lanean aritu direnak, hara ganadua hiltzera etortzen ziren baserritarrak edo erostera etortzen ziren harakinak, hango istorioak dauzkanak, argazkiak dituenak… guzti horiekin hitz egin nahiko nuke, herri bizipenak jasotzeko”. Horregatik, artxiboko lanekin batera, kalera aterako da aurki Aranguren, azkoitiarrekin hitz egin eta euren bizipenak jasotzera eta kontakizunak biltzera”.

El consistorio ha otorgado la beca Matadeixe a Olatz Aranguren. Pretende ahondar en tres aspectos de la historia popular de Azkoitia: por un lado, estudiará la relación que esta última década ha habido entre la ciudadania y el matadero; por otro, investigará los cambios socio-económicos que Azkoitia ha vivido en ese periodo; y por último, tratará el movimiento asambleario y cultural que en las últimas décadas ha surgido en torno al matadero. Aranguren tiene el plazo de un año para desarrollar su estudio.

Anitz eta aberats

Ehunka lagunek kolorez eta kulturaz bete dituzte kaleak, IPAKAn

Joan da IPAKA Izarraizpeko Aniztasun Kulturalaren Astea, bailarako kolore, aniztasun eta aberastasuna agerian utzita. Azkoitian eta Azpeitian egin dira aurten ekitaldi nagusiak, eta bai batean bai bestean, asko izan dira festaz eta kulturaz gozatzera atera diren herritarrak.

Ilargipean irakurketak, umeentzat tailerrak, karrozarekin lagundutako kantu bira, janari dastaketa, musika kontzertuak... egitarau anitz bezain zabalak jantzi zituen ekainaren aurreneko astean bailarako kaleak, eskualdeko kultura bizitasuna plazara aterata, eta antolatzaileak gustura daude “oso” izandako giro eta partaidetzarekin. Ume zein heldu, jatorri ezberdineko azkoitiar, azpeitiar eta zestoarrak elkartu eta elkar hobeto ezagutzeko balio izan du festak, eta bide horretan lanean jarraituko dute hiru udalek eta topaketa hauen antolatu dituzten eragile ezberdinek.

Elkarren arteko harremanak sendotzen ari direnaren seinale, IPAKAn parte hartu duten herritarrak bideo bat prestatzen ari dira orain, orduko irudi, doinu eta ekitaldiekin. Jatorri ezberdineko herritarren arteko elkarlanaren beste fruitu bat izango da, baina ez bakarra, “sortzen ari diren harremanen arteko aberastasun gero eta oparoagoa baita”.

IPAKA, la semana de la diversidad cultural del comarca, ha sacado a la calle, una vez más, la diversidad y la riqueza cultural del valle del Urola. Centenares de personas han participado en los diferentes actos organizados en Azkoitia y Azpeitia, lo que ha servido para seguir fortaleciendo las relaciones entre las personas de diferente origen que conviven en la comarca. Las/los organizadoras/es se han mostrado ‘muy satisfechas/os’ con el resultado y se han comprometido a continuar estrechando lazos entre las distintas culturas.



laburrak

Bertsotan. Aurten ere giro ederrean joan da 'Gu ere bertsotan' programako kurtso amaierako jaialdia. Herriko bi ikastetxeetako ehunka haur eta gazte, eta euren guraso, senide nahiz lagunek bete egin zuten Baztartxo antzokia, eta ikasturte osoan zehar landutako bertsoez gozatzeko aukera izan zuten. Ekitaldiaren bideoa ikusgai dago Udalaren youtube kanalean:
youtube/azkoitikoudala.com.
Fiesta de fin de curso de 'Gu ere bertsotan'.

Kantuz. Mintzalagun eta AEK euskaltegiko ikasleek kantuz esan zioten agur 2013-2014 ikasturteari, ekainaren 19an. Iraurgi abesbatzako zenbait kide lagun zituztela, kantu poteoa egin zuten aurrena bereziki prestatutako kantu liburuak eskuan zituztela eta gero, afaria egin zuten Jubilatuen tabernan. Giro paregabea izan duten.
Kantu-poteo y cena de fin de curso de las/los estudiantes de AEK.

Biharkok maila lortu du eta Serbitzuk zuena hobetu. Bai Euskarari ziurtagirien mailan pauso bat gehiago eman dute Serbitzu Elkarteak eta Biharko Gipuzkoa enpresek. Serbitzu Elkarteak Zerbitzua Euskaraz maila eskuratu du eta Biharko Gipuzkoak Euskararen Bidean maila. Bidean ziurtagiria programa horretako lehen mailako ziurtagiria da: ondoren datoz Zerbitzua Euskaraz maila eta Zerbitzua eta Lana euskaraz maila. David Martinez Lasa Ziurtagiriko ordezkaria eta Xabier Gantzarain euskara zinegotziak eman die ziurtagiria bi enpresetako kudeatzaileei.
Serbitzu Elkartea y Biharko han mejorado su posición en el ranking de certificados de Bai Euskarari. Serbitzu ha obtenido el certificado Zerbitzua Euskaraz y Biharko Euskararen Bidean.

Bai euskari ziurtagiria duten eragileak

AZKOITIA Udala EUSKARA ZERBITZUA · EBPN euskara bizberritzeko plan nagusia plan general de promoción del uso del eusk · ziurtagiriarenelkartea · bai euskarari · baieuskarari.org · azkoitiko euskalgintza

ALDALUR GIZONEZKOEN JANTZIAK
ARANBARRI DROGERIA
ARKUPE TABERNA
ARROSPIDE OINETAKOAK
ATERPE TABERNA
AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA S.L.
AZKOITIKO SORTU
AZKOITIKO EAJ-PNV
AZKOITIKO GURUTZE GORRIA
BIHARKO GIPUZKOA S.L.
KOXKA KAFETEGIA
KINTTELA ESTANKOA
KUTXA
LUR NATUR DENDA
MILAR LARRAMENDI
MOBELTEKNICA IKASI, S.L.
NHOA ESTUDIOA
OLABERRI PUB
OREKA BIOELKARTEA
OSTADAR OPTIKA
PLAZA BERRI SPORT
PRESALDE GOZOTEGIA
BIZKARGI MUSIKA ESKOLA
DEAN TABERNA
ELKARMEDIA S.L.
EROSKI BIDAIAK
EROSKI HIPERMERKATUAK
EROSKI ZENTER
ETXANIZ AUTOESKOLA
FK KOPISTEGIA
FLOREAGA SALESTAR IKASTETXEA
GONZALO CAMARON BITXITEGIA
ITZIAR JATETXEA
ITZIAR ARRANDEGIA
PSOE TABERNA
SERBITZU ELKARTEA S.L.
TILIN TALAN UME ARROPA DENDA
TAILETU INMOBILIARIA
TRAKI HARATEGIA
URIA SULKALDEAK
XABIER MUNIBE IKASTOLA DBH
XABIER MUNIBE IKASTOLA LH
YALAI GOZOTEGIA
ZAKELA KULTUR ELKARTEA

agenda

Uztaila

11-13
- **Urrategi auzoko jaiak.**

Uztailak 11
- 22:00etan: Mus txapelketa azkarra.

Uztailak 13
- 11:00etan, Meza Nagusia.
- 12:00etan: Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolarien saioa.
- 12:30ean: Herri kirolak: Goenatxo III eta Xabier Aranburu "Guzta" harrijasotzaileak eta Txikia IV eta Mikel Larrañaga aizkolariak.
- 13:30ean: Zabale eta Larrañaga trikitilariak.
- 16:30ean: Gorriti eta bere abereak.
- 16:30ean: Ume jolasak, puzgarriak eta tailerrak.
- 18:00ean: Azalgorretako "Inozentzia" mandemearen eta Aitor Olarrearen "Moro" idiaren arteko dema saioa.
- Ondoren, Zabale eta Larrañaga trikitilarien erromeria.

11tik 18ra
- Binakako pala txapelketa, Xakelak antolatuta. Partiduak, 12:00etan, Goiko losa pilotalekuan.

11tik 20ra
- Mundua orratzaren begian argazki eta testu erakusketa, Torre Zuri. Jon Andoni Martin 'Pegote'en argazki estenopeikoen erakusketa, bertako idazleen hamabi testurekin. Ordutegia: ostiraletan: 18:30etik 20:30era; larunbatetan: 11:00etatik 13:00era eta 18:30etik 20:30era; eta igandeetan: 11:00etatik 13:00era.

12, larunbata
- Musika Bandaren kalejira.

17, osteguna
- Robot Orchestra taldearen kontzertua. 22:30ean, Matadeixen.

18, ostirala
- Asto apustua. 22:00etan, Gurea frontoian
- Duatloi herrikoia, 19:00etan. Azkoitiko triatloi taldeak antolatuta.

19, larunbata
- Plater tiraketa, 12:00etan eta 16:00etan, Izarre Jandalo zelaian. Orion elkarteak antolatuta.
- Zea Mays taldearen kontzertua, 23:00etan, herriko plazan.

20, igandea
- Musika bandarekin bailableak, 12:00etan, San Jose egoitzan.

Abuztua

7 osteguna
- Thierry Escaich organistaren kontzertua. 20:00etan, parrokian, Musika Hamabostaldiak antolatuta,

14tik 18ra
- Andramaxek (egitaraua abuztu hasieran banatuko da etxez-etxe).

'Zilarrezko arraintxoak' Azkoitiko irakurle taldea, sortzear

Zilarrezko arraintxoak terminoa *Thysanura* intsektuak izendatzeko ere erabiltzen da. Paper-jaleak dira intsektu horiek, eta horregatik jarri diote izen hori Azkoitiko irakurle taldeari, "liburu paper-jaleak bildu nahi dituelako". Irene Elortzak bideratuta, euskarazko literaturaz solasean aritzeko eta eztabaidarako gunea izango da (euskal literatura, itzulpenak, garai eta genero desberdinetakoak...), eta hileko azken asteazkenero bilduko dira, Aizkibel Udal liburutegian. Horrez gain, ekimen bereziak ere egingo dituzte: irakurketak, idazleekin solasaldiak...

Irailean hasiko da martxan taldea, eta datozen egunetan aurkeztuko dute. Udalaren babesa izango du.

En septiembre se pondrá el marcha el club de lectura de Azkoitia 'Zilarrezko Arraintxoak'. Será un grupo de encuentro para charlar sobre literatura en euskera y se reunirán cada último miércoles de mes en la biblioteca municipal Aizkibel.

URBANUE

HERRI BARRUKO AUTOBUSA

1Bira Liburutegia-San Martin-Jausoro-Altzibar

Irteera, liburutegitik

Astegunetan
08:00/ 09:00/ 10:20/ 11:40/ 17:30 eta 18:50ean

Larunbatetan (lan egunetan)
09:00/ 10:20 eta 11:40an

Bira osoaren iraupena: 20 minutu

Liburutegia → B.mogel 5 → Gurutzeaga (parkea) → Balda kalea 6 zkia. → Burdinoleta Kalea → Jausoro (anbulatorioan) → Martin Kalea → Altzibar etorbidea (lurraldebuseko geltokia) → Altzibar etorbidea (Azkoitirantz norabidea) → San Martin kalea → Liburutegia

2Bira Liburutegia-Erdigunea-Santa Klara-Txerloia

Irteera, liburutegitik

Astegunetan
07:40/ 09:30/ 10:40/ 12:00/ 12:50/ 16:40/ 17:50 eta 19:10ean

Larunbatetan (lan egunetan)
09:30/10:40 eta 12:00etan

Bira osoaren iraupena: 16 minutu

Liburutegia → Julio Urkixo kalea (LIDL) → MAXI → Igerilekuak → San Jose egoitza → Klara donea (haurtzaindegiko kruzea) → Ibaiondo kalea (taxiak) → Liburutegia

3Bira Liburutegia-Erdigunea-Aingeru-Floreaga auzunea-Auzmendi

Irteera, liburutegitik

Astegunetan
08:30/ 09:50/ 11:00/ 12:20/ 17:00/ 18:10 eta 19:30ean

Larunbatetan (lan egunetan)
09:50/ 11:00 eta 12:20an

Bira osoaren iraupena: 26 minutu

Liburutegia → Julio Urkixo (Eroski txikia) → San Martin kalea → Aingeru Kalea (Oteiza frontoiak) → Aizkibel kalea (Posta) → Aretxabaleta kalea → Eskola guneak → Auzmendi (Hilerri parean) → Klara donea (Haurtzaindegia) → Jandonianiz (Intsausti parean) → Beidazar kalea (Ertzantza parean) → Liburutegia

Ipintza auzoa

Astegunetan
Liburutegia-Ipintza: 13:10 eta 20:00etan.
Ipintza-liburutegia: 07:30 eta 16:30ean.

Larunbatetan
Liburutegia-Ipintza: 13:10ean.
Ipintza-liburutegia: 08:50ean.

Igandeetan ez da zerbitzurik egongo.
Bidaiako prezioa: 20 zentimo.

Laster, Urbanue martxan